

# EMAKUMEA

## ERMUKO ELIZAN

**Gure nagusiak behartsuenak dirala konturatu gara eta bakardade hori gainditzeko ahalegin guztiak egiten doguz.**

Parrokiak Batzorde Nagusia P astoral Kontseilua da, bertan erdiak baino gehiago andrazkoak izanik. Emakumeak betetzen dabezan lan edota arlo batzuek honexek dira: liturgia, bataio prestakuntza, gaixoen pastoral, Kristau ikasbidea, eliza garbiketa eta abar.

Karitas arloan, gizonezkoek gehien bat langabeziari buruzko eginkizunetan dihardue eta beste hogeitabi emakumek talde txikietan eratuta, herriko leku ezberdinetan lagun hurkoaren alde lan egiten dabe, guztien arduraduna emakume bat izanik.

Kristau Ikasbideko lehenengo lau mailako arduraduna emakume bat dugu; azken arduraduna dan abadea aurten ondoezik dagoela, berak, ume taldeak eratu, katekistak izendatu, materiala banatu ta abar autonomia osoaz egin dauz.

Gaixoen Pastoral, Karitasen eraginez sortutako talde bat da, bertan hamazortzi dagoz eta emakume bi dira arduradunak.

Inguruko gaixo eta nagusien egoera hobeagotu eta gizatartzea dira talde honen helburuak: «gure nagusiak behartsuenak dirala konturatu gara eta bakardade hori gainditzeko ahalegin guztiak egiten doguz».

### GALDERAK

1. Zer lan betetzen dozu arduradun bezala?
2. Zelan heldu zara arduradun izatera?
3. Zenbat denbora daroazu arduradun lan horretan?
4. Zer asmo daukazu etorkizunerako?

**Ane Orbe eta Asun Morales. Gaixoen Pastoralaren arduradunak.**

1. Eritetze, erresidentzia eta nagusien egoitzetan dagozan atso-agureen egoeraz arduratu eta ahal dan neurrian bisitatu eta premiei anaikortasuna eskaintzea da gure lana.

2. Talde barruan botazioz demokratikoki hautatuak izan ginan.

**Aseguroak  
Gidatzeko baimena  
Gestoria**



Probaleku z/€

tfn: 171758



3. Azkenengo urte biak gutxi gora behera.
4. Aipatutako azken urteetan egindako lanari jarraitzea; sendiak, gaixo eta nagusiekiko, izan behar dabe ardura eta babes nabarmanduz.

**Ramoni Noguez Gorritxategi. Asistenta Soziala, Karitaseko arduraduna.**

1. Karitaseko helburuak gogoan izanik, gizarte zuzenago eta berdintsuago baten alde jokatu eta behartsuenei laguntza ematea dira gure asmoak. Horretarako lanean diharduten talde guztien koordinazioa burutzea da nere arduradun betebeharra beti ere gure gizarte ardurazko lanak hobeto betetzeko gai izan daitezcan prestaturik.


Herritarren arazoei irtenbidea eta laguntza emateko dago Karitas. Horrez gainera udaletxeko 'Ongizate Soziala' batzordeko partaidea da.

2. Batikano II.a Kontzilioaren arabera eleizaren asmoa izan zan Kristau laikoak elizbarrutiko eginbideetan parte hartzea, eta hori izan da neurri batean nere arduradun izatearen arrazoia.

3. 1980. urtean hasi nintzan eta bertan diraut.

4. Orain arte bezala, aurrera jarraitu, Karistas eta gaixoen pastoreko partaideen gaitasunak gogortuz. Karitasek daukazan asmo eta egitarau barriak bete:

- Goi mailako arriskudun gazteentzako hezi ikastaroak.
- Behartsuendako laguntza juridikoa eskaini.
- Drogezaleei 'Proyecto Hombre'ri buruzko informazioa eta babes eman eta abar.



Araozak badira: familia eta pertsonengan izten dabe euren urratsa.

Non dago, zure eritziz, utsunea edo arazoa? Konturatzen ete gara?

**Batikano II.a kontzilioaren arabera eleizaren asmoa izan zan kristau laikoak elizbarrutiko eginbideetan parte hartzea.**

**Blanquita Olañeta Izagirre. Kristau Ikasbideko 4. mailarainoko arduraduna.**

1. Nere zeregina Kristau Ikasbideko antolaketa da: katekistak topatu, umeen kristau ibilera jarraitu, batzarretara eta asanbladetara etor daitezcan animatu, Gabonetako ekintzak antolatu, Jauna hartzeko jantziez eta behar diran liburuez arduratu eta abar; hitz batean arduradun izan.

2, 3. Orain dala lau kurtso Jesus Zamalloa jaunak agindu hau leporatu eustan eta hiru urtetan zehar egunero katekista berriak, abadearen berbaldia baino lehen ordu erdiz prestatu dodaz.

Geroago, ekainean, Parrokiako Pastoral Kontseiluan parte hartzeko lehenengo hiru kurtsoetako berrogeitamar katekisten artean neu aukeratu izan nintzan Kristau Ikasbideko arduradun izateko.

4. Lanean jarraitzeko gogoak ez jataz falta baina batzutan familiako eginbeharrak ez dauste izten, horregaitik aurten 1, 2 eta 3. kurtso bakoitzerako arduradun bat aukeratu da eta jazotzen diran gauzen jakinean eukitzen nabe.

Nere asmoa katekistak (gaur eguneko egoerak eskatzen daben moduan) ahalik eta onduen preparatuta Kristau Ikasbideak aurrera egitea da; eta baita ere katekesia, Jaun hartze ekintza sozialerako, besterik ez dala pentsatzen daben gurasoengana hurreratzea; baita katekista eta beste gurasoen artean hartu-emon zabalagoak eukitzea.